

Abenduak 3 - EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA



Familia estimatuak:

Zuen seme-alaben hiztegia aberastu nahi? Ba, jolastu gurekin galdera honi erantzunez!

ZEIN DA ZUEN EUSKAL HITZ KUTTUNA?

Barregarria egiten zaizuen hori? Esanahi berezia duen beste hura? Akaso doinuarengatik gustuko egiten zaizuen bestea?...

Familian bat aukeratu eta eskolan partekatu!

Horretarako zuen semeak edo alabak eramango duen papertxoan idatzi behar duzue hitza, eskolara ekarri (**azaroaren 28a baino lehen**), eta hemen, bere ikaslagunari hitza zergatik aukeratu duzuen azaldu ondoren, marrazkia egingo dio. Guztiekin hitzez eta marrazkiz beteko dugu sare handi bat!

Eskerrik asko zuen lankidetzagatik!

Hitzak ez du antzik xaboiarekin. Zenbat eta gehiago erabili xaboa, orduan eta gastatuagoa; hitzak ordea, alderantziz, zenbat eta erabiliago orduan eta aberatsago. Esan eta berresan egin behar da hizkuntza. Hortik kanpora ez dago bizitzarik, ERABILERA da, hizkuntzaren ardatza.

Horregatik dabil bizkor gaztelera eta makal euskara: jendeak berealdiko gauza pila egiten dituelako euskararen alde, salbu eta beharrezkoa den bakarra: HITZ EGIN.



Bernardo Atxaga

